BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE

2859

EBAZPENA, 2014ko ekainaren 17koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, musika, arte eszenikoak eta ikus-entzunezkoak sustatzen diharduten pertsona fisiko eta pertsona juridiko pribatuek, euskararen eremu geografikotik kanpo, 2014. urtean antolatutako merkatu, azoka, edo gertaera profesionaletan, parte hartzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

Etxepare Euskal Institutua / Instituto Vasco Etxepare / Etxepare Basque Institute (EEI aurrerantzean) Sortzeko eta Arautzeko 3/2007 Legearen 3.b) artikuluak ondoko helburua xedatzen du aipatutako EEIrentzat: «Euskal Kultura bere hizkuntza ofizialetako edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adiera-moldetan kanpoan ezagutarazten eta hedatzen laguntzea, bereziki euskaraz sortutako kultura-eskaintza sustatuz eta hedatuz».

Bestalde, EEIren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartzen duen 2008ko maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuak xedatzen du Institutu horren eskumenekoa dela Euskal Kultura Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo sustatzea eta hedatzea. Dekretu horrek bere 19. artikuluaren 2. atalean dio Euskal Kultura Sustatzeko eta Hedatzeko arloak musika, arte eszenikoak, ikusizko arteak, zinea, arkitektura eta diseinua hartzen dituela bere baitan. Bestalde, artikulu horren f) zatiak EEIren funtzioen artean aipatzen du euskal sorkuntza nazioartean ezagutzera emateko kultura-eragileei laguntzeko programak diseinatzea.

Hori dela eta, EEIren jarduera arloekin bat etorriz, interesgarritzat jo da euskararen eremu geografikotik kanpo ikus-entzunezkoen, musikaren eta arte eszenikoen inguruan antolatzen diren merkatu izaerako azoka eta jaialdietan parte hartzeko diru-laguntzak emateko modua arautzea.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da musikaren, arte eszenikoen eta ikus-entzunezkoen sektoreetako profesionalei, 2014. urtean eta euskararen eremu geografikotik kanpo, merkatu, azoka, edo gertaera profesionaletan parte hartzeko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea.

2. artikulua.– Deialdiko modalitateak.

II. kapitulua: Musika.

III. kapitulua: Arte eszenikoak.

IV. kapitulua: Ikus-entzunezkoak.

3. artikulua.– Diru-baliabideak eta laguntza-mugak.

1.– Deialdi honetarako gehienezko zenbateko orokorra hirurogeita hamar mila (70.000) eurokoa izango da, eta modalitate bakoitzari dagokion zenbatekoa honakoa izango da:

a) Ikus-entzunezkoetarako berrogeita hamar mila (50.000) euro.

b) Musikarako hamar mila (10.000) euro.

c) Arte eszenikoetarako hamar mila (10.000) euro.

2.– Deialdi honen bidez diruz lagundutako gastuek lotura zuzena izan beharko dute azokaren batean parte hartzearekin.

a) Onartuko diren gastuak:

Joan-etorriak, ostatua, dietak, stand-aren alokairua eta azoketan kreditatzeko edo instalatzeko gastuak.

b) Laguntzen zenbatekoak:

– Ostatu eta otorduetarako gehienezko gastuak, pertsonako eta eguneko: Espainian, hirurogeita hamabost (75) euro ostaturako eta berrogeita bi (42) euroko dietarako. Espainiatik at, ehun eta hogei (120) euro ostaturako eta hirurogeita hiru (63) euro dietarako.

– Automobila erabiliz gero, zero koma hogeita bederatzi (0,29) euro km-ko gehi autopista eta parkinga. Kilometro kopurua kalkulatzeko, diru-laguntza eskaera egin duen pertsona fisiko edo juridiko pribatuaren sozietate egoitza hartuko da abiapuntutzat.

– Ibilgailua alokatua denean, alokairuaren kostua, erregaia, autopistako gastuak eta parkinga.

– Hegazkina, trena edo bestelako garraio publikoren bat erabiliz gero, maila arrunteko txartela soilik onartuko da.

3.– Gehienezko diru-laguntzak:

a) Arte eszeniko eta musika modalitatea:

– 5.000 km-tik harago egitekoak diren azokak: mila (1.000) euro.

– 1.200 km-tik 5.000 km artean egitekoak diren azokak: zortziehun (800) euro.

– Gehienez ere 1.200 km-tara egitekoak diren azokak: bostehun (500) euro.

b) Ikus-entzunezkoen modalitatea:

– Gehienezko diru-laguntza honakoa izango da azokako: mila (1.000) euro.

Eskatzaile batek azoka guztietarako jasotako diru-laguntzen batura ez da inoiz bi mila berrehun eta berrogeita hamar (2.250) euro baino handiagoa izango.

4.– Deialdi honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde publikoek helburu berbererako emandakoekin, betiere gain-finantzaketarik gertatzen ez bada. Gain-finantzaketarik badago, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

5.– Aurrekontu-zuzkidura eskaera guztietarako iritsiko ez balitz, hainbanaketa bidez esleituko litzateke bakoitzari legokiokeena, betiere azoka bakoitzerako ezarritako laguntza-mugaren % 50 gutxienez bermatuz, aurrekontua agortu arte. Ondorio honetarako eskabidearen sarrera-erregistroko hurrenkera hartuko da kontuan.

6.– Ebazpen honetako modalitate bakoitzean adierazitako zuzkidura dena dela ere, eskabiderik ez dagoelako edo eskatzaileek baldintzak betetzen ez dituztelako, ezarritako diru-kopurua agortzen ez bada, modalitate baterako diru-laguntzaren zenbatekoa beste modalitatearen soberakinaren bitartez handitu ahal izango da, betiere delako modalitate hori artean erabaki gabe badago, lehentasun ordena honen arabera: arte eszeniko eta dantza azokak, musika azokak, ikus-entzunezko azokak. EEIko zuzendariak aurretiazko ebazpen bidez emango du honen berri, zeina EHAAn argitaratua izan beharko den.

4. artikulua.– Pertsona edo entitate onuradunak.

1.– Ebazpen honek araututako diru-laguntzen onuradun izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Pertsona fisiko edo juridiko pribatua izatea eta sozietate-egoitza edo helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan izatea. Merkatuan ikusgai edo salgai jarritako obraren edo lanaren komunikazio-hitza euskara denean, sozietate-egoitza edo helbidea euskararen eremu geografikoan duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak ere aurkeztu ahal izango dira.

b) Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denerako alta emanda egotea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, egingo den jarduerari dagokion epigrafean.

2.– Ez da onartuko nagusiki kapital-ekarpen publikoa duten entitate pribatuen, fundazioen, «Ondasunen erkidego» izaerakoen eta dagokion modalitateko sektorearen jarduerarekin lotura zuzenik ez duten elkarteen eskaerarik.

3.– Ezingo dute deialdi honetako diru-laguntzetara aurkeztu laguntza publikoak eskuratzeko zigor administratibo edo penalik duten pertsona fisiko edo juridikoek, ezta horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekua dutenek ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapen seigarrena urratuz sexu-diskriminazioa egiteagatik debeku hori dutenak barne direla.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak edo bere erakunde autonomiadun zein menpeko entitate publikoek entitate onuradunari ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren bat eman badiote eta hori itzultzeko edo zigortzeko prozeduraren bateko izapideak egiten ari badira, ezinbestekoa izango da prozedura hori amaitzea diru-laguntza esleitu eta ordaindu ahal izateko.

5. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatuko dituen organoa.

EEIri dagokio deialdi honen bidez emango diren diru-laguntzak kudeatzea.

EEIk proiektuen garapenaren jarraipena egingo du, eta onuraduna behartua egongo da horretarako eskatutako ikuskapen- edo informazio-eskaerei erantzutera.

6. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epe eta modua.

1.– Epeak:

Irailaren 12ra arteko epea, EHAAn argitara eman eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Modua:

Eskatzaile bakoitzak eskabide bakar batean aurkeztuko ditu eskaera guztiak.

3.– Ebazpen honen babesean aurkeztuko diren eskabideak eranskinetan ezarritakoari jarraituz egingo da. Laguntzaren eskabidea ondorengo helbidean aurkeztu beharko da: Etxepare Euskal Institutua. Prim kalea 7; 20006 Donostia. 30/1992 Legean ezarritako beste edozein bide ere erabil daiteke eskabideak aurkezteko (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

7. artikulua.– Eskabidean egindako akatsak zuzentzea.

Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen den agiriren bat falta dela edo forma-akatsak daudela, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela ohartarazi egingo zaio, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez.

8. artikulua.– Ebazpena.

1.– Diru-laguntzak esleitzeko prozedura konkurrentzia ez lehiakorra izango da eta EEIko teknikariei dagokie ebazpen-proposamena egitea, EEIko zuzendariak ebazpena eman dezan.

Esleipen-ebazpena eskaerak aurkezteko epea amaitu eta bi hilabetera emango da gehienez.

2.– Ebazpena Etxepare Euskal Institutuaren web orrialdean argitaratuko da, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legearen 59.5.b) artikuluarekin bat etorriz.

3.– Ebazteko epea inolako jakinarazpenik gabe igarotzen bada, eskaera ezetsitzat joko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

9. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

1.– Emandako diru-laguntza onartzea. Diru-laguntza eman zaiela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean, onuradunak berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, diru-laguntza onartu egin dela ulertuko da.

2.– Diru-laguntza adierazitako helburu zehatzerako erabiltzea, eta diruz lagundutako jarduera 2014. urtean burutzea.

3.– Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari deialdi honen bidez jasotako diru-laguntzei buruzko informazioa ematea, eskatuz gero.

4.– Esleipen-ebazpena jasotzen den egunetik aurrera, EEIren babesa jaso dutela berariaz eta argi adieraztea katalogo, programa, iragarki-kartel, argazki eta argitaratzen diren gainerako material grafiko zein soinudunetan.

5.– Ebazpena eman aurretik eskabidean aurkeztutako proiektuan aldaketaren bat eginez gero, horren berri idatziz ematea EEIri. Berri hori jasotzen duenetik, EEIk 15 egun balioduneko epea izango du erantzuteko. Erantzunik ez bada, aldaketa onartutzat joko da.

6.– Onuradunak diruz lagundutako proiektuarekin lotutako materiala eta irudiak erabili ahal izateko baimena bermatzea EEIri, horrek informazioa hainbat euskarritan zabal dezan.

10. artikulua.– Diru-laguntzaren ordainketa.

Esleitutako diru-laguntza ordainketa bakar baten bidez gauzatuko da, jarduera amaitu eta behar bezala justifikatu ondoren.

11. artikulua.– Justifikazioa eta likidazioa.

Ebazpen honetan ezarritako diru-laguntzen onuradunek lagundutako jarduera amaitu edota ebazpena argitaratu eta bi hilabeteko epearen barruan aurkeztu beharko dituzte jarraian zerrendatzen diren agiriak. Abenduan egindako jardueren kasuan, betiere 2015eko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztuko dituzte agiriak.

a) Burututako jarduera osoaren memoria-balorazioa.

b) Diruz lagundutako gastuen egiaztagirien zerrenda ordenatua (fakturak, ticketak...). Fakturek eskatzailearen izenean egon beharko dute, eta indarrean dagoen araudi fiskalaren arabera baliozkoak izan beharko dute. Bestelako monetatan egindako fakturen kasuan, gastua eurotan zenbatekoa izan den adierazi beharko da, horretarako erabilitako kanbio-tasa adieraziz.

c) Diruz lagundutako stand-aren alokairua, joan-etorriak, ostatua, autopista, parking-a eta kreditatzeko eta instalatzeko gastuak jatorrizko fakturen bidez edo EEIren egoitzan konpultsatutako fotokopien bidez justifikatuko dira. Ez dira onartuko konpultsatzeko fakturak haien fotokopiak aurkezten ez direnean.

d) Dietak justifikatzeko, aski izango da dagokion eranskinean jasotzen den taula bete eta sinatzearekin.

e) Ostatu gastuak fakturekin justifikatuko dira.

f) Norberaren ibilgailuan egindako bidaietarako, nahikoa izango da onuradunak dagokion eranskineko kilometraje taula bete eta sinatzearekin. Honela kalkulatuko da kilometro kopurua: jarduera egiten deneko herritik pertsona fisiko edo juridiko pribatu eskatzailearen sozietate egoitzara edo establezimendura dagoen joan etorriko distantzia.

g) Diruz lagundutako jarduera dela eta sortutako katalogo, programa, iragarpen-kartel, argazki eta gainontzeko material grafiko edo soinuzkoaren aleak, hala badagokio, EEIren logoaren bidez laguntza jaso dela adierazita.

h) Eskabidea aurkeztu ondoren helburu berbererako jasotako bestelako diru-laguntzen zerrenda. EEIk emandakoaz gain beste diru-laguntzarik jaso ez bada, hori horrela dela adierazten duen zinpeko aitorpena aurkeztuko du.

Diru-laguntza justifikatzeko bidalitako agiriak aztertu ondoren, dena delako zioarengatik, gain-finantzaketa badago edo gastatu den dirua behar bezala zuritu ez bada eta, hala badagokio, jasotako dirua osorik edo zatiren batean likidatzea badagokio, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak justifikagiriak aurkezteko epea bukatu eta bi hilabeteko epean, Likidazio indibidualizatuaren Ebazpena emango du.

12. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Ebazpen honetan edo maila orokorreko beste edozein aginduetan ezarritako betebeharrak ez betetzea.

2.– Emandako diru-laguntza guztia edo zati bat ebazpen honetan aurreikusitako jarduera ez den besteren batean erabiltzea.

3.– Hala badagokio, diru-laguntzaren likidazio ebazpenean zehaztutako laguntza ez itzultzea horretarako emandako epean.

Halakorik gertatu dela egiaztatzen bada, ez betetzea gertatuko dela ulertuko da eta, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusitakoari jarraiki, pertsona edo entitate onuradunak itzuli egin beharko dizkio EEIri jasotako diru-kopuruak eta horiei legez dagozkien interesak.

II. KAPITULUA

MUSIKA

13. artikulua.– Diru-baliabideak eta mugak.

1.– Modalitate honetarako gehienezko zenbatekoa hamar mila (10.000) eurokoa izango da.

2.– Eskatzaileak eskabide bakarra aurkeztuko du, nahi beste azokatara joateko, baina azoka guztietarako jasotako diru-laguntzen batura ez da inoiz bi mila berrehun eta berrogeita hamar (2.250) euro baino handiagoa izango.

3.– Azoka bakoitzerako gehienez emango den diru-laguntza 3.3 artikuluan ezarritakoa izango da.

III. KAPITULUA

ARTE ESZENIKOAK (ANTZERKIA - DANTZA)

14. artikulua.– Diru-baliabideak eta mugak.

1.– Modalitate honetarako gehienezko zenbatekoa hamar mila (10.000) eurokoa izango da.

2.– Eskatzaileak eskaera bakarra aurkeztuko du, nahi beste azoketara joateko, baina azoka guztietarako jasotako diru-laguntzen batura ez da inoiz bi mila berrehun eta berrogeita hamar (2.250) euro baino handiagoa izango.

3.– Azoka bakoitzerako gehienez emango den diru-laguntza 3.3 artikuluan ezarritakoa izango da.

IV. KAPITULUA

IKUS-ENTZUNEZKOAK

15. artikulua.– Onuradunen berariazko betebeharrak.

1.– Ekoizpen- eta banaketa-enpresa edo pertsona fisiko zein juridiko pribatu independente izatea, alegia, ekimena izan eta ikus-entzunezko obra egiteko erantzukizuna hartzea eta, bertako partaidetzaren zatirik handiena ez izatea, zuzenean nahiz zeharka, telebistako zerbitzuak kudeatzen dituen erakunde batek.

2.– Gutxienez bi urteko ibilbide profesional egonkorra izatea, agirien bitartez egiaztatuta. Enpresa berria bada, zenbaketa hori enpresa eratzen duen zuzendaritza-taldeko kideei dagokiena izango da.

16. artikulua.– Diru-baliabideak eta esleipena.

1.– Modalitate honetarako gehienezko zenbatekoa berrogeita hamar mila (50.000) eurokoa izango da.

2.– Eskatzaileak eskaera bakarra aurkeztuko du, nahi beste azokatara joateko, baina azoka guztietarako jasotako diru-laguntzen batura ez da inoiz bi mila eta berrehun eta berrogeita hamar (2.250) euro baino handiagoa izango.

3.– Azoka bakoitzerako gehienez emango den diru-laguntza 3.3 artikuluan ezarritakoa izango da.

4.– Diru-laguntzak ondorengo zinemaldi eta azoketan parte hartzera bideratutakoak izango dira:

a) FIAPF federazioak (Film-ekoizleen Nazioarteko Federazioak) «A» moduan sailkatutako nazioarteko zinemaldietan: Berlin (Alemania), Kairo (Egipto), Cannes (Frantzia), Karlovy Vary (Txekiar errepublika), Locarno (Suitza), Mosku (Errusia), Mar de Plata (Argentina), Xangai (Txina), Tokio (Japonia), Venezia (Italia), Montreal (Kanada).

b) Gainerakoetan: NATPE (AEB), AFM (AEB), MIPTV (Frantzia), MIFA (Frantzia), Sunny Side of the Doc (Frantzia), Sheffield Doc/Fest (Erresuma Batua) MIPCOM (Frantzia), MIFED (Italia), IDFA (Herbehereak), Cinema Jove Nazioarteko Zinemaldia (Espainia), ClermontFerrand-eko Film Laburren Nazioarteko Zinemaldia (Frantzia), Siggraph-eko 3D animazioko Nazioarteko Zinemaldia (AEB), Cartoon Forum (Frantzia), Cartoon Movie (Frantzia), Guadalajarako Zine Iberoamerikarraren zinemaldia (Mexiko), Different 6 (Frantzia)

Zerrenda honetatik kanpo egon daitezkeen zinemaldi eta azoketarako eskaerak ere aztertuko dira. Zinemaldien kasuan, ez dira onartuko sektoreko profesionalei zuzendutako azokarik gabekoak. Ondorio honetarako, zera hartuko da azoka profesionaltzat: enpresen artean merkataritza harremanak sustatzen dituen gune edo ekitaldi berezitua.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Ebazpen honetako laguntzak Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 araudian ezarritako «minimis» arauaren mende daude. Araudi hori Ituneko 87. eta 88. artikuluak minimis –L 379/5, 2006-12-28– laguntzei aplikatzeari buruzkoa da (egun Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107 eta 108 artikuluak). Arau horiei jarraiki, enpresa jakin bati emandako laguntza osoak ezin du izan berrehun mila (200.000) eurotik gorakoa azken hiru ekitaldi fiskaletan.

Horren ondorioz, aurreko bi urteotan eta aurten, jasotako minimis motako diru-laguntzei buruzko adierazpena aurkeztu beharko da.

Bigarrena.– Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategi eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen babesean, ebazpen honen izapidetzea dela-eta EEIk eskuratuko dituen datuak fitxategi automatizatu batean sartuko dira. Fitxategiko datuak ez zaizkio beste inori lagako; EEIk soilik erabiliko ditu, berak sustatutako diru-laguntzak kudeatzeko. Aipatutako lege horietan jasotzen den moduan, datuok ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko edo kontra egiteko eskubideak erabili ahal izango dira. Horretarako, idazki bat bidali beharko zaio Etxepare Euskal Institutuko zuzendariari helbide honetara: Etxepare Euskal Institutua, Prim kalea 7; 20006 Donostia.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete interesatuek EEIko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko dagokion aretoan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak.

Donostia, 2014ko ekainaren 17a.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,
MARÍA AITZPEA GOENAGA MENDIOLA.

I. ERANSKINA

I-I Diru-laguntzaren eskabidea.

I-II Pertsona edo entitate eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa.

I-III Aurrekontua eta justifikazioa.

I-IV Zinpeko adierazpenak. Beste diru-laguntzak. Minimis diru-laguntzak.

I-V Datuen Alta / Doakion hirugarrena.

I-VI Justifikaziorako taula ereduak.

– Dietak justifikatzeko taula.
– Kilometrajea justifikatzeko taula.

I-VII Pertsona edo entitateari buruzko agirien ordezko aitorpena.

I-I. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZAREN ESKABIDEA

ESKATZAILEA					
Pertsona fisiko edo juridikoaren izena					
NAN edo IFK		Kontu korronte zk.	..... / ..... / ..... /		
Helbidea					
Posta-kodea		Herria			
Web-orria		Faxa			
Tel.		E-posta			
PERTSONA JURIDIKO PRIBATUAREN LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK					
Izen-abizenak					
NAN					
Helbidea					
Posta-kodea		Herria			
Tel.		E-posta			
KONTAKTURAKO DATUAK					
Izen-abizenak					
Helbidea					
Posta-kodea		Herria			
Tel.		E-posta			
BURUTU NAHI DEN JARDUERAREN IZENBURUA ETA DESKRIBAPEN LABURRA					

..... (e)n, 2014ko ..... ren ..... (e)(a)n.

Izenpea (1)

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraituz eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategi eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoaren arabera, Etxepare Euskal Institutuak jakinarazten dizu, eranskin honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula. Fitxategiko datuak ez zaizkio beste inori lagako; Etxepare Euskal Institutuak soilik erabiliko ditu, berak sustatutako diru-laguntzak kudeatzeko. Aipatutako lege horietan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Etxepare Euskal Institutua, Prim kalea 7; 20006 Donostia.

I-II. ERANSKINA

PERTSONA EDO ENTITATE ESKATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.– Eskabidea sinatuta (I-I. eranskina) (1).

2.– Pertsona edo entitateari buruzko agiriak.

A) Pertsona fisikoak baldin badira:

☐ NANaren fotokopia.
☐ Errolda agiria.

B) Pertsona juridikoak baldin badira:

☐ Pertsona juridikoaren legezko ordezkariaren NANaren fotokopia eta lege-ahalmena duela egiaztatzen duen ziurtagiria, ahalordetze agiriaren kopiaren bidez edo, hala badagokio, dagokion organoak egindako egiaztagiriaren bidez.
☐ IFZren fotokopia.
☐ Dagozkion erregistro publikoetan inskribatuak daudela egiaztatzen duen ziurtagiria.
☐ Entitatearen eratze-agiria eta estatutuak.

C) Pertsona fisiko nahiz juridikoak badira:

☐ A) eta B) ataletan eskatutako dokumentazioaren ordezko aitorpena (2). I-VII. eranskina.
☐ Zerga-zorrak kitatuta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria (3).
☐ Gizarte Segurantzarekin egunean izatearen ziurtagiria (3).
☐ Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren baitan jarduerari dagokion epigrafean alta izatea ziurtatzen duen agiria.
☐ I-IV. eranskina. Zinpeko aitorpenak, xede berberaz eskatutako beste diru-laguntzak eta «Minimis» diru-laguntzak.

3.– Jarduerari buruzko dokumentazioa.

☐ Memoria zehatza honako hau jasoko duena: helburuak, parte hartuko den azoka/k, exekuzio-egutegia, parte-hartzaileak…
☐ I-III. eranskina: aurrekontua.

4.– Justifikazioari buruzko dokumentazioa.

☐ Eskabidean adierazitako helburuen betetze maila eta ekintzaren garapena jasotzen duen memoria zehatza.
☐ Gastu eta diru-sarreren balantzea (I-III. eranskina, azken zutabea beteta).
☐ Diruz lagundutako gastuen egiaztagirien zerrenda ordenatua eta burututako jarduera aurrera ateratzeko egindako gastuen ordainagiri originalak edo konpultsatuak. Dietetarako nahikoa izango da I-VI. eranskineko taula osatu eta sinatzea.
☐ Diruz lagundutako jarduera dela eta sortutako materialen ale bana, euskarri fisiko nahiz magnetikoan, eta egin den hizkuntza guztietakoa.

5.– Ordainketarako dokumentazioa.

☐ I-V. eranskina (2012ko eskabideetara aurkeztu ez bada edo aurkeztutako datuak aldatu badira).

---

(1) Eskabidea eta zinpeko adierazpenak izenpetzen dituenak eta eskaera egiten duenak pertsona bera izan beharko du, eta entitatearen legezko ordezkaria izan.

---

(2) A) eta B) ataletan eskatutako dokumentazioa jadanik Etxepare Euskal Institutuaren esku baldin badago ez da berriz ere aurkeztu behar (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35.f) atala). Aitorpen bidez egiaztatu behar da dokumentazioa indarrean dagoela, eta EEIn noiz aurkeztu zen. Hori honako kasu hauetan bakar-bakarrik egingo da: dokumentazioari dagokion jardunbidea bukatu zenetik hiru urte baino gehiago pasatu ez badira. Ikus I-VII. eranskina.

---

(3) Gehienez, eskaera aurkeztu baino hiru hilabete lehenagokoa izan beharko du, eta horretarako eskumenak dituen erakundeak emana. Dena den, dokumentazio hori dela eta jardunbideak irauten duen bitartean eskatzen zaizkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu onuradunak. Eskaera egin duen pertsona fisikoak edo entitateak lurralde bat baino gehiagotan jarduten baldin badu, helbide fiskala duen lurralde guztietako dagokion organoak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko du zerga-zorrak kitatuta dituela egiaztatzeko.

I-III. ERANSKINA

AURREKONTUA ETA JUSTIFIKAZIOA

ESKATZAILEA .....

Azokaren izena eta tokia	Egun kopurua	Ostatu gastuak	Dietak	Bidaia gastuak		Beste gastuak	Gastuak guztira	EEIri eskatutako diru-laguntza	Azken kostua*
				Autoa					
				Trena / Abioia					
Gastuak denera eta laguntza eskaria									
Azken likidazioa									

Sinadura (1)

* Justifikazioarekin batera bete beharrezko zutabea.

I-IV. ERANSKINA

ZINPEKO ADIERAZPENAK. BESTE DIRU-LAGUNTZAK. «MINIMIS» DIRU-LAGUNTZAK

Izen-abizenak .....

NAN zenbakia .....

..... entitate / enpresaren legezko ordezkari gisa

IFK .....

neure ardurapean ADIERAZTEN DUT:

☐ Pertsona edo erakunde eskatzaileak ez duela zigor administratibo edo penalik, diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko, ezta horretarako gaitasuna kentzen duen legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrena urratuz, sexu-diskriminazioa egiteagatik debeku horrekin zigortuta daudenak barne.

☐ Eskaera honetan eta eranskinetan ageri diren datu guztiak eta erantsitako dokumentazioa egiazkoak direla.

PROIEKTU BERERAKO ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO ADIERAZPENA

☐ Pertsona edo erakunde eskatzaileak EZ DU ESKATU xede berberaz beste diru-laguntzarik.

☐ Pertsona edo erakunde eskatzaileak honako diru-laguntzak ESKATU DITU xede berberaz:

Erakundea	Eskatutako diru-laguntza	Erantzunaren zain	Emandako laguntza

«MINIMIS» MOTAKO DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO ADIERAZPENA

☐ Pertsona edo erakunde eskatzaileak azken hiru ekitaldi fiskaletan, EZ DU JASO «minimis» motako inolako laguntzarik.

☐ Pertsona edo erakunde eskatzaileak azken hiru ekitaldi fiskaletan, «minimis» motako laguntzak JASO DITU. Guztira jasotako laguntza ..... eurokoa izan da ondorengo xehapenareki:

Urtea	Erakundea	Tramitazioa*	Zenbatekoa
		Guztira	

.....(e)n, 2014ko .....ren .....(e)(a)n.

Eskatzailearen edo legezko ordezkariaren sinadura

* E = Eskatua; EM = Emana; O = Ordaindua

I-V. ERANSKINA

DATUEN ALTA / DOAKION HIRUGARRENA

A	HIRUGARRENAREN EZAGUPENERAKO DATUAK

NAN/IFK .....

Bi abizenak eta izena / Sozietatearen izena .....

Helbidea .....

Posta kodea ..... Herria .....

Lurraldea ..... Herrialdea .....

B	BANKUAREN DATUAK

Bankua ☐☐☐☐..... Agentzia ☐☐☐☐.....

KD ☐☐ K/ korrontea ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

Jabea .....

OHARRA: Kontu korrontearen jabeak doakion hirugarrena bera behar du izan.

C Bankuaren adostasuna	D Hirugarrenaren adostasuna	E EEIren onespena
Sinadura eta zigilua	Sinadura eta zigilua	Baimendutako sinadura eta zigilua

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraituz eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategi eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoaren arabera, Etxepare Euskal Institutuak jakinarazten dizu, eranskin honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula. Fitxategiko datuak ez zaizkio beste inori lagako; Etxepare Euskal Institutuak soilik erabiliko ditu, berak sustatutako diru-laguntzak kudeatzeko. Aipatutako lege horietan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Etxepare Euskal Institutua, Prim kalea 7; 20006 Donostia.

I-VI. ERANSKINA

DIETAK JUSTIFIKATZEKO TAULA

Dietak (1)				
Izen-abizenak	NAN zk.	Zenbat egun/datak	Dieta	Guztira
			Guztira	

(1) Azken justifikazioak egitean betetzeko. Gehienez 42 euro eguneko estatuan eta 63 euro atzerrian.

..... (e)n, 2014ko .....ren ..... (e)(a)n.

Pertsona fisiko eskatzailearen edo pertsona juridikoaren legezko ordezkariaren sinadura:

KILOMETRAJEA JUSTIFIKATZEKO TAULA

Kilometrajea				
Azoka edo merkatua	Data	Ibilbidea (1)	Km kopurua	Guztira
			Guztira	

(1) Diru-laguntza eskaera egin duen pertsona fisiko edo juridiko pribatuaren sozietate egoitza hartuko da abiapuntutzat.

..... (e)n, 2014ko .....ren ..... (e)(a)n.

Eskatzailearen edo legezko ordezkariaren sinadura:

I-VII. ERANSKINA

PERTSONA EDO ENTITATEARI BURUZKO AGIRIEN ORDEZKO AITORPENA
Nik, ..., nire izenean edo ..... entitatearen ordezkari legala naizen aldetik, hauxe adierazten dut: I-I. eranskinean A) eta B) ataletan eskatzaileari buruz eskatzen diren agiriak Etxepare Euskal Institutuaren esku daudela, eta dokumentazio hori indarrean dagoela, bertan aurkeztu baitzen 201 .....ko ..... (ren) ..... (n), ... alorreko dirulaguntza deialdiaren barruan.
..... (e)n, 2014ko.....ren .....(e)(a)n. Eskatzailearen edo legezko ordezkariaren sinadura: